

ERASOA ESTATU BATUEN AURKA. Washingtingo botere militar eta finantzarioaren aurka eraso gogorra egin dute bahitutako hiru hegazkinak. Eraso gehiago saihesteko neurri zorrotzat hartu ditu nazioarteak, burtsa erori da eta hegaldiak bertan behera gelditu.



HUBERT MICHAEL BOESL / EPA

DORRE BIKIAK SUTAN. Manhattan uhartean dagoen World Trade Center merkataritza gunearen egoitza diren Dorre Bikiek su hartu, eta erori egin ziren hegazkin erasoaren eraginez.

Estatu Batuen bihotzean jo dute hegazkin eraso koordinatuek

Max Boehnel | NEW YORK

New York, astearte goiza 8:48, betiko (inoizko) erasoaren gunea izan da. 18 minutuko tartean, bi hegazkin zibilek World Trade Centerreko Dorre Bikien aurka, munduko dorre ezagunen aurka jo dute Manhattan auzoan, Wall Streeteko finantza distritoa eta zazpi milioi biztanleko distritua oharkabean harapatuta. Eraikinen barruan eta inguruetan hildakoen behin-behineko kopuruak milaka dira. American Airlines konpai-

New Yorkeko World Trade Center merkataritza gunea eta Pentagonoaren egoitza suntsitu dituzte bahituriko hiru airekok

Salbamendu lanak berehala hasi diren arren, hildakoak milaka izan daitezkeen beldur dira Washingtingo agintariak

niaren arabera, bere hegazkin bat bahitua izan zen bere bidean Bostondik abiatu ostean. Beste junboak Newarken (New Jersey), Manhattandik milia gu-

txi batzutara aireratu zen. Bi dorreak erasoak gertatu eta ordu-betera eraitsi ziren, bi hegazkinak eraikuntzetan sekulako zu-loak eta sugar erraldoiak eragin

ostean. Manhattango aireak kautxu errearen usaina zuen eta hiribide kilometro mordo hau- tsak estaltzen zituen. Zaurituta- ko milaka lagun erietxeetara

eraman zituzten egun argitan, baina asko ziren oraindik iritsi behar zutenak. Manhattan he- goaldea hustutzeko agindua emana zuen ordurako Rudolph Giuliani alkateak.

EEBBetako George W. Bush presidentea airean zen eraso gertatu eta ordu eta erdira. Bere lehen esanak «tragedia nazio- nala» eta «ustezko eraso terro- rista» izan ziren.

New Yorkeko hiritarrak era- soaren ondorioak sinesteko la-

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)